


Abarrak

UNAI BREA

Gaua 2.000 urtean behin balitz

Nightfall. Isaac Asimov eta Robert Silverberg.
Argitaletxea: Bantam books. 1990.



ASTRONOMIAREN NAZIOARTEKO URTEAN gaude eta zerura begira jarri gaituzte. Gauetz, ahal dela. Astronomiak gaua behar du, Silvio Rodriguezek kantatu zuenez gauaren erruz baitago unibertsoa. Hausnarketa hauek, ezinbestean, zientzia-fikzioaren historiak eman duen narraziorik ospetsuenetako bat aipatzera naramate: *Nightfall* (Iluntzea). Isaac Asimovek idatzi zuen, istorio labur modura, 1941ean. Askoz geroago, 1990ean, eta Robert Silverberg-ekin elkar-

lanean, ipuina luzatu eta nobela bihurtu zuen.

Kalgash planeta Lurraren antzekoa da, oso antzekoa. Bertako biztanleak gu bezalakoak dira, eta gurea bezalako bizimodua dute. Alde bakarra dago: Kalgashek sei eguzki ditu, eta beti da eguna. Kalgashtarrek ezin dute gaua irudikatu, eta egia esan deseroso samar daude iluntasunean.

Kosmosak bere gutziak ditu ordea. 2.049 urtero, hainbat orduz, eguzki guztiak desagertzen dira zerutik. Iluntasuna dator. Batzuentzat eromena izan daiteke, baina horrek ez du berez zibilizazioaren amaiera ekarriko. Bada zerbait okerragoa, kalgashtarren arima betebetean jipoituko duena: *izarrak* izeneko fenomenoak, erlijio liburuetan besterik aipatzen ez dena. Baina inork ez daki izarrak zer diren... ikusi arte.

Nobelaren azken zatia da jatorrizko ipuinari egin zaion ekarpenik handiena. Gauak unibertsoaren handitasuna erakutsi die Kalgashko biztanleei, eta bat-bateko errebelazio horrek kaosa eragin du: erotuta, ia planeta osoa suntsitu dute. Ondoren datorrena ez da zientzia-fikzioa, berdin balio du eguzki bakarreko planetetarako ere. Anarkiaren errautsetatik ordena berria jaioko da, eta aginte-makila eskuratzeko borroka latza izango da erlijioaren eta zientziaren artean. Orogen gainerik ideia bat gelditzen da: giza taldeek berezkoa dute euren burua botere baten inguruan antolatzeke joera. Barka gaitzala Bakunin jaunak.

ARABAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

2009

Abt'09

SUSTRAIAK
ERROTUZ

I. Kanporaketa

AMURRIO

Arenalde Jatetxea

Otsailak 21, larunbata

20:00etan

Manex Agirre, Zigor Enbeita,
Juan Mari Juaristi, Ruben Sanchez,
Serapio Lopez, Felipe Zelaleta

Babesle nagusiak:

Babesleak:

argia